

AA taldeak egoitza berria du

Uzturre plazako lokal batean biltzen dira Alkoholiko Anonimoetako kideak

Duela lau urte hasi zen lanean, Alkoholiko Anonimoen Lasarte-Oriako taldea Villa Mirentxu eraikinean eta Gipuzkoa osoko 350 bat familia pasa dira taldetik. Orain Uzturre plazako lokalean hasi dira lanean.

Alcoholiko Anonimoen bulegoa Txara eraikinean zegoen lehen, Intxaurren auzoan, eta lehen aldaketa Lasarte-Oriara etortzea izan zen. "Villa Mirentxu eskaini ziguten eta leku aproposa zela iruditu zitzaigun. Baina Udalak hitzaldi aretoari eman nahi dion erabilera eta gure proiektua ez datoz bat. Eta gure lana ongi gauzatzeko lekuz aldatzea erabaki genuen" azaldu digu Josean Alkoholiko Anonimo AAetako arduradunak.

Taldea Lasarte-Oriako dagoenetik 350 bat familia izan dira laguntza eske pasa direnak. Gipuzkoa osokoak izan dira gainera, "eremuko erreferente bilakatu zen taldea. Herialdeko jendea etortzen zen Zarautz, Oiartzun, Tolosa... Lasarte-Oriako jende asko ere izan da, baina askok beste herrietara jo dute anonimata mantentzeko" adierazi digu.

AAetako arduradunak aipatu duenez, "lehenengo bi urteak oso garrantzitsuak dira sendatze prozesurako. Alkoholismoak estigmatizazio handia du eta kideen anonimata eta osasun mentala mantendu behar ditugu".

Ekintzak

"Horregatik, bilera itxiak egin ditugu. Baina lurralde mailako ekintzak ere egin



Alkoholiko Anonimoetako taldeak Uzturre plazako lokal batera lekualdatu du bere egoitza.

ditugu, zerbitzu desberdinak gainera: lurraldeko telefonoaren arreta eta ospitaleetara eta psikiatrikoetara bisitak egin ditugu, astero" jakin arazi digu arduradunak.

Eta honetaz gain, "Gipuzkoako eskola guztietan hitzaldiak ematen ditugu, erizaintzako eskolan monografiko bat egin genuen eta psikologiako unibertsitatean ere izan gara. Osasun zentro guztietara joaten gara eta enprekin ere lan egin du".

Herriko taldeak gainera, aurkezpenen horiek prestatzen ditu, "gure taldeak eginganda aurkezpenak dira, nahiz eta Gipuzkoako taldearen izenean aurkeztuak izan".

Gaixotasuna

Baina oraindik lan handia dagoela onartu du Joseanek, "alkohola droga bat da. Gizarteak onartu duen droga gogorra da".

Eta AAko arduradunak azpimarratu duenez, "alkoholismoa gaixotasuna da eta eragin handia duena. Minbiziak baino heriotza gehiago sortzen ditu. Ez zuzenean. Ezkutuan, gaixotasun asko sortu baititzake".

Gainera, gizarteak alkoholizaleen egoera onartu behar duela ere adierazi digu, "jendeak normaltasunez edan dezake alkohola, baina ulertu behar du, zenbait pertsonen ezin dutela normaltasunez edan. Gaixotasun bat dut eta eragina dauka nire egoera fisiko eta mentalean".

Lokal berria eta

Lan hori guztia, AA taldeko kideek Uzturre plazako lokalean egingo dute hemendik aurrera.

Bertan egingo dituzte bilera itxiak eta hilabeteko bilera irekiak ere bai. Baina aldaketa bat dagoela jakinarazi digu Joseanek, "hitzordua, lehen, hilabe-

teko lehenengo astelehenean bazen ere, orain lehenengo ostiralean izango da".

Tamalez, lokal berri honek arazo bat sortu die, "mantenua eta lokala ordaindu behar ditugu. Eta ez dugu inongo laguntzarik. Taldeko kideek ematen duten gutxiarekin ordaindu behar da guztia. Ikusi beharko dugu noiz arte egon gaitzkeen honela".

Urteurrena

Honetaz guztiaz gain, otsailaren 3an, taldea Lasarte-Oriako sortu zenetik lau urte beteko dira eta bilera irekia egingo da.

AAko arduradunak aipatu diguenez, "Osasun jardunaldietan egon zen Kristina Saez de Arregi psikiatra gure artean egotea espero dugu. Honek alkoholismoari eta droga desberdinei buruz asko daki. Estatu Batuetan lanean egon da urte askotan Alkoholiko Anonimoetako taldeekin".



Rafa Lopez-en kontakizun berria argitaratu dute

Rafa Lopez herritarren "Bajo una lluvia" kontakizunak "Genaro Seguido" lehenengo literatura lehiaketan parte hartu du. Gai sozialak sustatzen dituen "Genaro Seguido" kultur elkarteak antolatutako lehiaketa da eta liburu bat egin dute aukeraturako hamahiru testurik; tartean da, herritarren testua. / 5. orrialdea

KULTURA /3

"Ogro Txikia" antzezlanaren ikusteko sarrerak zozketatu ditu Udalak

POLITIKA /4

Aurrekontuak enpresa baten esku uztearekin ez dator bat PSE-EE

KIROLA /6

Nazioarteko Krosa, datorren igandean, Hipodromoan



GURUTZETA SAGARDOTEGIA

20€ MENUA ASTELEHEN, ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN

ZATOZ TXOTX EGITERA!

EGUNERO IREKITA
ASTELEHENETIK LARUNBATERA
ARTE,
EGUERDI ETA GAUETAN.
IGANDEA ITXITA.

ASTEAZKENETAN "OTXOTEA"

ENKARGUZ ESKATU DAITEZKEENAK:
BAKAILUA SALTSAN
WAGYU TXULETAK
SAHIESKIA

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxe: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

Neure kabuz



Kirolean (I)

Topo egin dugu kiroldegian: aspaldiko! Bai, aspaldiko! Tarteka, aldageletan gurutatu gara justu-justu agurtzeko denborarekin. Halere, udal kiroldegia ireki zenetik, orduan eskaintzen ziren ikastaroetan ibiltzen ginen.

Gogoratzen zara? -galdetu dit bizikleta gainean berotzen ari ginela-, garai hartan neska ia bakarrak ginen gimnasioan zein klaseetan. Bai, horrela zen esan diot-. Egun ordea, kiroldegia txikia geratu da, asko hazi da Lasarte-Oria, ezta? Baietz esatekotan egon naiz baina.... Ba, ez dakit -erantzun diot-, esango nuke herriko populazioa ez dela hainbeste handitu.

Bizimoduan antzematen ditut nik aldaketa nabarmenenak. Kirol jarduera gure egunerokotasunean txertatu da. Baina zein harreman dugu kirolarekin? Osasuna eta estetikarekin loturiko argumentuak nagusitu dira, bereziki, adinduen artean (45-50etik gorakoak).

Gainera susmoa dut horretan herriko emakumeek apustua egin dutela eta beraiei esker handitu dela kiroldegiko bazkideen kopurua. Jolasa eta dibertsioa dira, aldiz, umeak (5-12 bitartekoak) kirolean aritzeko arazoak. Hor neskak eta mutilak pareko dabilta nahiz eta askotan batzuk zein besteak eremu bananduetan aritu (zenbat mutil soilneta erritmikoan?, zenbat neska futboleant?). Eta gazteak (12-25 urteokak)? Eta 30-40 urte bueltan dabilzatanak? Badut hurrengo zutaberako gaia...

Jon Miren Hernandez

Zorion-agurrak



Endika

Zure 8. urtebetetzean, oso ondo pasako duzula-koan. Muxu handi bat, familia guztiaren partetik!



Lara eta Nora

Zorionak zuen 7. Eta 3. Urtebetetzean. Ondo pasa. Aitaxo eta amatxo.



Kris eta Jorge

Zorionak familia! Aurtengoa bai urtebetetze berezia. Muxutxuak hirurontzat.



Ane

Zorionak Ane zure 1. Urtebetetzean. Muxu handi bat zure familiaren partetik.



Josu

Zorionak, atzo 13 eta gaur egun bat gehiago! Segi horrela! Gurasoak, Xabier eta Ane.



Nerea

Zorionak guraso, aiton-amon, izeba eta familiaren partetik. Zazpi muxu potolo eta ondo pasa!



Ander

Zorionak "txapelduna", familiaren partetik. Prestatu eskuak bosteko jasotzeko gaur.



Irati eta Leire

Zorionak Mari, Janire eta Ireneren partetik. Txokomarrubizko lau muxu goxo.



Aitor

Ondo pasa zure bosgarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiaren partetik. Asko maite zaitugu!!



Irati

Zorionak Printzesa zure laugarren urtebetetzean! Muxu handi bat aitaxo eta amatxoren partetik.



Igone

Zorionak maitia. Hamar muxu jagoba, aita, ama eta familia guztian partetik.



Peru

Zorionak!! 8 mila muxu zure familiaren partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Etxea alokatzen dut Zumaburu. 3 logela eta balkoia ditu. Partikularra naiz. Harremanetarako, 660 549 308.
- Garaje marra bat alokatzen da Urbarten. Harremanetarako, 943 363 524.
- Lasarten pisua eta kotxeko marra alokatzen ditut. Pisuak hiru logela eta bi komuna ditu. Guztia hego aldera dago kokatuta. Harremanetarako, 606 391 998.
- Logela bat alokatzen da, pertsona langile eta arduratsuari, Lasarteko erdialdean. Interesa daukatenek telefono honetara deitu: 637 315 213.

Jan-eskariak

- Txakurrak paseatzeko pertsona arduratsua eskaintzen da. Harremanetarako, 620 190 207.
- Geriatrian laguntzailea, eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua edo gaixoak zaintzeko edo garbiketa egiteko prest dago. Orduka, gauetan edo

asteburuetan. Profesionaltasuna eta tratu ona eskaintzen du. Carlos (680 983 527).

- Emakume esperientziaduna umeak edo pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Klaudia, 663 117 579.
- Emakume arduratsua eta esperientzia handikoak adinduek zainduko lituzte. Asun 943 362 473 667 075 139
- Etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 647 025 876.
- Pertsona helduen zaintzarako erizaintza eta geriatrian trebatuta den gaztea eskaintzen da. Interesatuak 679 526 305 telefono zenbakira dei dezatela.
- Emakume bat frantzeseko goimailarekin haurrei-helduei eta enpresetan klaseak emateko eskaintzen da. Itzulpenak ere eginen ditu. Telefono: 680 581 914/ 943 372 748.

Bestelakoak

- Zientzi arloan klase partikularrik ematen ditu esperientzia duen mutilak. 695 719 085.

Oharra jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Heriotzak

- Pablo Martin Lozano, urtarrilaren 24an, 51 urte zituela.
- Bittor Herrera Azkune, urtarrilaren 23an, 79 urte zituela.
- Luciano Cabezudo Perez, urtarrilaren 22an, 73 urte zituela.
- Ignacio Beitia Ozaeta, urtarrilaren 22an, 89 urte zituela.

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 27

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Larunbata, 28

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Igandea, 29

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astelehena, 30

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Asteartea, 31

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteazkena, 1

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Osteguna, 2

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

"Ogro Txikia" haur antzerkia kultur-etxean

■ Antzerkia sei urtetik gorako haurrei zuzenduta dago ■ Kultura sailak sarreraren zozketa egin zuen

Antzezlanean sei urteko ogro txikia da protagonista. Honek bere patua aldatu nahiko du eta ogro sena eta desio basatiei aurre egin. Hau lortzeko ogrotxoak hiru froga gainditu beharko ditu.

Protagonista txikiak aitarengandik jaso du haragi xamurrenganako gogoia eta amak, aldiz, munduarekin bakean bizitzeko grina opartu dio. Horrela antzezlan osoan zehar protagonistaren beldurrak, arazoak eta zalantzak islatuko dira.

Gorakada antzerki taldearen lana da larunbatean Manuel Lekuona kultur-etxean 18:00etatik aurrera ikusi ahaliko dena eta sei urtetik gorako haurrei zuzenduta dago.



"Ogro Txikia" Antzerkiaren pasarte.



Boris Nogales kultura sailko burua Maite Toquerori sarrera bikoitzetako bat ematen.

Antzezlan saritua

Gorakada antzerki taldeak Suzanne Labeau egile frantziarraren "L'Ogrelet" lana moldatu du euskarara.

Durangoko konpainiak FETEN Europako Arte Eszenikoen Topagunean "Ogro Txikia" lanarengatik saria jaso zuen. Hain zuzen ere haurrentzako antzezlan hoberearen saria, testu originalaren moldaketa bikaina izateagatik.

Honetan Iñake Iraztorza, Aritza Rodriguez eta Javi Tirado aktoreek hainbat txotxongilorekin bat egiten dute agertokian ikuslea fantasiako mundura erakarriz.

Sarrerak on line

Ordu beteko iraupena izango du antzezlanak eta sarrerak dagoeneko Manuel Lekuona kultur-etxeko leihatilan 3,40

eurotan daude salgai. On line erostekotan berriz, www.lasarteoriasaren.eu webgunearen bitartez 3 eurotako kostua izango dute, lehiatilan baino merkeagoa.

Gainera, Kultura sailak aurreratu bezala, lehen bi sarrera bikoitzen zozketa burutu du hilabete honetan "Ogro Txikia" lanerako hain zuzen ere.

Zozketa hau webguneko harpide guztien artean egin zen asteazkenean eta sarituek honen berri izan dute posta elektronikoz bidez.

Boris Nogales zinegotziaren hitzetan "sarreraren zozketak martxan jarri dugunetik harpidetza handitu egin da webgunean eta biztanleak zozketari buruz galdetu izanak erabaki ona izan dela uste dugu".

Nahiz eta urtarrileko zozketa jada egin den, kultura sailak herritarrei gonbidapena luzatu die www.lasarteoriasaren.eu webgunean harpidetu daitezten, "hurrengo hilabeteetan zozketak egiten jarraituko dugulako".

Web-guneko "lasarteoria berriak" atalean egin daiteke harpidedun email helbide bat emanez. •

Familia giroa hobetzeko hitzaldia

Gipuzkoako Guraso Bananduen elkarteak AGIPASE, Lasarte-Oriako Udala eta Emakumeen Zentro Zibikoaren elkarlanarekin, "Gizon-emakumeen arteko berdintasuna: erronka edo errealitatea" hitzaldia antolatu du. Otsailaren 9an izango da 18:00etan Villa Mirentxun eta bi orduko iraupena izango du.

Sara Gonzalez Muro psikologoa arituko da hizlari familia, edozein egitura duela, instituzio osasungarria izan dadin.



AGISAPE-k jardunaldi ezberdinak antolatzen ditu berdintasunaren alde. AGISAPE

Tailerra

Hitzaldiaz gain, Guraso Bananduen Elkarteak, Lasarte-Oriako Emakumeen Zentro Zibikoan otsailak 16, 23 eta martxoaren 1ean 18:00etatik 20:00etara bitartean "Berdintasunean heztek zer dakarkit eta nola egin dezaket" tailerra burutuko du.

Ekimena elkartearen "Familia Berdintasunean"

programaren baitan kokatzen da eta gizon-emakumeen aukera-berdintasunari buruz sensibilizatzea du helburu.

Elkarteak herritar guztiak animatzen ditu ekimen hauetan parte hartzera.

AGIPASE elkarte

Elkarteak familia arazoak dituzten pertsoneri zerbitzu

ezberdinak eskaintzen dizkie, arreta psikologikoa, familia bitartekaritza edo gurasokideztako tailer ezberdinak besteak beste.

Era berean, elkartearen beste helburua prebentzioa eta prestakuntza lantzea da. Horregatik, gure herrian tailerra eta hitzaldia antolatu dituzte. •

IKASTETXEAK

Tituluak jasotzeko aukera institutuan

2009-2010 ikasturtean DBH-ko eta Batxilergoko ikasketak "Lasarte-Usurbil BHI" institutuan amaitu zituzten ikasleek dagoeneko euren tituluak eskuragarri dituzte ikastetxearen idazkaritzan. •

UDALTZAINAK

Galdutako objektuak jasotzeko deia

Udaltzainek jakin arazi dutenez honakoak daude euren bulegoan jasota: Jose Luis izena grabatuta duen aliantza, urrezko esku-muturreko bat, eraztun bat, neska esku-muturra, urrezko belarritako bat, txirrindu bat, graduazioa duten bost betaurreko, bi mugikor eta txamarra beltz bat. Haien jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek hilabeteko epean jaso beharko dituzte bestela legeak ezarritako norakoa emango zaiela adierazi dute.

Aipatutako objekturen bat ezagutzekotan, udaltzainen bulegotik 09:00etatik 13:00etara bitartean pasatzeko gomendatzen da ahal bezain laster. •

IKASTAROA

Janari-manipulatuak ikastaro berria

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean, janari-manipulatuak ikastaro berria antolatu du. Honako ostalaritzako sektoreari zuzenduta dago eta Osasun Sailak eskatzen duen auto-kontrolaren inguruko edukiak landuko dira. Ikastaroa otsailaren 13an izango da Anbulatorioko bigarren solairuan dagoen erabilera anitzeko aretoa 16:00etik 20:00era. Pertsonako 45euro ordaindu beharko dira eta langabetuek 35 euro. Informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko, OMIC 943361605 edo Elkolab, S.COOP. 943533303 telefonora deitu behar da. •

2012ko aurrekontua kanpoko enpresa batek egitearen aurka da PSE-EE

- Estitxu Alkorta Ogasun eta Kontuen arduradunak komisioan eman zuen jakitera erabakia
- PSE-EEren iritziz gehiezkoa da aurrekontuak egiten Udalak 6.000 euroko kostua izatea

Maider AZURMENDI

Lasarte-Oriako PSE-EEK ez du bat egiten Ogasun komisioan proposatutakoarekin. Ez du 2012ko aurrekontuen burutzea kanpoko enpresa bati esleitzea nahi besteak beste, udal kontu-hartzailea erabaki honen kontra azaldu delako eta 6.000 euroko gastua eragingo duelako.

Estitxu Alkorta Ogasun eta Kontuetako komisio buruak udaleko ordezkariak bilduta, 2012rako aurrekontuen borradore enpresa bati egitea eskatuko zaiola eman zuen jakitera.

Orain arte lan hau udaleko kontu-hartzaileari egokitu zaio eta herriko PSE-EEK era-



Jesus Zaballoz 2012ko aurrekontuen inguruko agerraldian.

baki honen aurkako jarrera azaldu zuen atzo egindako prentsaurrekoan.

Jesus Zaballozen esanetan,

bere alderdiari gobernuan egon bitartean beti leporatu zitzaion aurrekontuak garaiz ez aurkeztea hau da, urteko

azken astean dagoeneko hurrengorako kontuak itxita ez egotea. "Estitxu Alkortak egiten zigun bereziki kritika hori eta orain, hasteko beraiek ez dituzte abenduan aurrekontuak aurkeztu eta gainera udaleko langileek egin beharrean, berak aukeratutako kanpoko enpresa bati eman nahi dio lana". Salatzekoa da, Zaballozen iritziz, enpresa horren hautaketa ere, "zergatik eskatu zaio bakarrik aurrekontua enpresa horri?".

Gehiegizko gastua

Sozialistentzat "onartezina" da lan hau udaletik ateratzea jakinda udal kontu-hartzailea ez dagoela ados erabakiarekin eta gainera "nahiz eta kanpoan egin aurrekontuen borrado-

rea ondoren, langile honi dagokio dena begiratu eta oniritzia ematea. Alferrikako lan bikoitza da gure ustetan".

Bestalde, lan honengatik 6.000 euro inguru ordaindu beharko zaizkio enpresari aurreikuspenen arabera, 50 euro orduko. "Beharrezkoa ez den zerbitzu batengatik diru kopuru hori ordaintzea gehiegizkoa dela iruditzen zaigu eta gehiago gauden egoera ekonomikoan". Lana enpresari emateko beharrezkoa den kreditorearen aldaketan kontra azalduko direla aurreratzen duen.

Jesus Zaballoek aurrekontuak udalean egitekotan bere alderdiak ez duela arazorik jarriko "hauek martxoan aurkezten badira ere" azalduz.



OTEGI

SAGARDOTEGIA
SOLLAENEA BASERRIA

- Larunbata eta jai eguerditan irekita
- Asteartetik larunbatera gauero irekita

28an (larunbata honetan) irekitzen dugu txotx garaia !

Zabaleta auzoa • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365029



SANTA TERESA IKASTETXEA



ZATOZ GU EZAGUTZERA!

ZERBITZUAK

- Jangela (propioa)
- Autobusa

- Eskolaz kanpoko ekintzak : kirol jarduerak eta jarduera kulturalak
- Haurtzaindegia (07:45etik 09:00era)
- Donostiako Autobusa: 5,24,25,27 eta 33 lineak
- Topoa: Lugaritz

- * 1-2 URTEKOEN GELAK - AULAS 1-2 AÑOS D Eredua
- * HAUR HEZKUNTZA - EDUCACION INFANTIL D Eredua
- * LEHEN HEZKUNTZA - EDUCACION PRIMARIA B Eredu indartua
- * D. B. H. - ESO B Eredu indartua
- * BATXILERGOA A Eredu indartua
- (Humanidades y CCSS - Ciencias y tecnología)

Manuel de Lardizabal Pasealaekua, 25 • DONOSTIA 20018
Tel.: 943 211764 / 943 214294 / 620761809 • Faxa: 943 217477
E-maila : secretaria@santateresa-ikastetxea.com
www.santateresaikastetxea.com

EUSKARA, GAZTELANIA ETA INGELESA (CIM proiektua) MINTZAMENA LANTZEKO AMERIKARREKIN KLASEAK

TUTORETZA: ARRETA PERTSONALIZATUA

INGURUGIROAREKIN KONPROMISOA: AGENDA 21

KALITATEAREKIN KONPROMISOA : EFQM

Rafa Lopez en kontakizun soziala

Herritarraren "Bajo una lluvia" idazlana aukeratu dute "Genaro Seguido" lehiaketako libururako

Rafa Lopez herritarraren "Bajo una lluvia" kontakizuna argitaratu dute "Genaro Seguido" kultur elkarteak lehenengo literatura lehiaketako idazkiekin egindako liburuan. Bere lanean gai soziala da nagusi, baina umorea eta drama nahastu ditu kontakizunean.

Rafa Lopez herritarrak Internet bidez jakin zuen Toledoko "Genaro Seguido" kultur elkarteak antolatutako lehenengo kontakizun lehiaketari buruz.

Idazleak azaldu digunez, elkarte honek kultura soziala bultzatu eta sustatzen du. Horregatik, kontakizunek gai soziala izan behar zutela, azaldu digu herritarrak.

"Nahiz eta hainbat lan izan eginak, ez nuen gai horri buruzko ezer. Bi hilabete nituela ikusi eta "Bajo una lluvia" lana idatzi eta aurkeztu nuen lehiaketara," adierazi digu.

Posta elektronikoko bidez jakin zuen bidalitako kontakizunen artean hamahiru aukeratu eta liburu bat egingo zutela. Berea horien artean zegoen, ezustekoa izan zen beretzat.

Sistema eta umorea

Herriko idazleak azaldu digunez, "Bajo una lluvia" kontakizunak bi zati ditu.

Lehenengo atalean gazte baten pentsamenduak deskribatzen ditu. Tren batean doa eta gaur egungo kontsumo sistemari buruzko kritika sakona egiten du. Hau guztia umorez kontatzen da eta

azkenean, tren antzoki bilakatzen du.

Bigarren zatia, berriz, trenetik kanpo da. Drama generoa ukitzen du eta bukaera harrigarria du. Sistemaren itsukeriarengatik ume baten bizitza jokoan nola jartzen den ikusi ahalko dute irakurleek.

Gainera, berak literatura uler erraza egiten duela argitu digu, "kaleko hizkera erabiltzen dut eta ez da zaila ulertzeko".

Salmenta

Azaroaren 25ean, Toledoko Taiga Liburudendan egin zuen liburua-aren aurkezpena

"Genaro Seguido" kultur elkarteak.

Lasarte-Oriako idazleak aipatu digunez, "liburua salgai da Espainiako hainbat liburudendan eta banatzaile alternatiboek ere eskuragarri izango dute."



Posta elektronikoko bidez ere eskatu ahal izango da, algenaroseguido@gmail.com helbidean".

Ateratako diru guztia "Genaro Seguido" kultur elkarteak autogestionatzeko izango dela ere jakin arazi du.

Bigarren argitalpena

Hau da Rafa Lopez herritarrari argitaratzen dioten bigarren kontakizuna, duela urtebete Tenerifeko "La colmena" argitaletxeak "Verde Religión" kontakizuna aukeratu zuen ateismoarekin zer ikusia zuten beste kontakizunekin batera.

Honetan Ama Birjinen agerraldi baten ostein, pertsona baten bizipenak, errealitate kanpoko egoerak eta liserigikoak umore handiz kontatzen ditu. •

Rafa Lopez "Genaro Seguido" lehiaketako liburuaren eskuan duela. RAFA LOPEZ

Bideo Lagunak

Betiko zerbitzua
gure
aholkularitza
onenarekin



Inguruko erakusketarik
onena!

**BEGIRATU
GURE ESKAINTZAK!**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 28

10:30ean, Ostadar-Añorga (Infantil Ohorezko maila, kopa) Michelinen.
 11:45ean, Beasain-Ostadar (Infantil txikia, kopa) Igartzza, Beasain.
 12:00etan, Ostadar-Lengokoak (Jubenilen Ohorezko maila) Michelinen.
 15:30ean, Ostadar-Allerru (I. Kadetea, igoera) Michelinen.
 15:30ean, Dunboa Eguzki-Ostadar (Gorengo Erregionala) Ugalde-Ventas, Irunen.
 15:30ean, Aizkorri Goierri-Texas Lasartearra (I. Kadetea, kopa) Alustiza, Segura.
 16:00ean, Hondarribia-Ostadar (Emakumezkoen Erregionala, igoera) Ondartza, Hondarribian.
 17:15ean, Texas Lasartearra-Segura (I. Erregionala, kopa) Michelinen.
 19:00etan, Touring-Texas Lasartearra (I. Jubenila) Fanderia, Errenterian.
 19:30ean, Beasain-Ostadar (I. Erregionala, igoera) Igartzza, Beasainen.

Igandea 29

10:30ean, Ostadar-Vasconia (I. Infantila) Michelinen.
 11:30ean, Hondarribia-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila) Ondartza, Hondarribian.

ARETO FUTBOLA

Ostirala 27

HERRIKO TXAPELKETA
 Areto-futboleko pista
 19:30ean, Indaux-ISU Leihoak
 20:20ean, El Punto-Bar de Mau
 21:10ean, Trumoi-Izarra

Larunbata 28

17:30ean, ISU Leihoak-Kurutziaga ikastola (Euskal Liga) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista
 09:10ean, Balerdi-Ilargi
 10:10ean, Oriá Krist.-Ayete
 11:10ean, Txindoki-Viña del Mar
 12:10ean, Izkiña-Buenetxea
 13:10ean, Tiburones Rojas-Dakara
 14:10ean, Naiban-Illum

18:00etan, Elorrioko Buskantza-Buruntza K.T. AldazH.K. (Nazional III. maila) Elorrioko udal kiroldegian.

PILOTA

Ostirala 27

19:15ean, Oiarpe 2-Intza (Errendimendu txapelketa, infantilak) Madalensoro, Oartzunen.

Larunbata 28

15:00etan, Añorga 3-Intza 2 (Errendimendu txapelketa, eskuz binaka alebinak 2. urtea) Añorgan.
 16:00etan, Intza-Zaramaga (Euskal Herriko txapelketa, eskuz binaka

kadetea) Michelingo pilotalekuan.
 16:30ean, Zumaia-Intza (Udaberri txapelketa, eskuz binaka I. seniorra) Zestoako Udaleko pilotalekuan.

ATLETISMO

Larunbata 28

10:30ean, Landaberri eta Sasoeta ikastetxeko gaztetxoek eskolarteko alebin eta infantilen mailako pistako txapelketako jardunaldia dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostian
 16:45ean, herriko eta LOKEko adetek parte-hartze askeko proba dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostian.

Igandea 29

10:15etik aurrera, herritar talde batek 57. Donostiako Nazioarteko krosean parte hartuko dute, Donostiako hipodromoan.
 12:00etan, herritar talde batek Idiazabalgo XXXII. herri krosean parte hartuko du.

IGERIKETA

Larunbata 28

10:00etatik aurrera, Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior, promesa eta absolutuek Gipuzkoako Federazio-ko lehenengo Sarian parte hartuko dute, Paco Yoldi kiroldegia, Donostian.
 16:30ean, Buruntzaldea IKT-ko alebin eta infantil mailako gazteak Kutxa Sariko Kanporaketetan izango dira, Legazpian.

JUDO

Igandea 29

10:30ean, LOKEko judoka gazteek kadete mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute, Hernanin.
 Ostean, alebin mailako LOKEko judoek eskolarteko jardunaldia izango dute, Hernanin.

ERRUGBYA

Igandea 29

10:30ean, Beltzak Ostadar Jalai eskolako eskolarteko mailako infantilek topaketa dute, Ayeteko zelaian, Donostian.
 10:30ean, Beltzak Ostadar Jalai eskolako benjamin eta alebinek topaketa dute, Altamira zelaian, Ordizian.



BOLA-JOKOA

Igandea 29

10:00etan, Ostadar SKT-ko kideek bikotekako txapelketako lehenengo jardunaldian parte hartuko dute, Idiazabal.



Nazioarteko mailako korrikalariak ikusiko dituzte igandean hipodromoan izango den Donostiako krosera hurbiltzen direnek.

Donostiako Nazioarteko krosa igandean Hipodromoan

Euskadiko txapelketa ere jokatu da proba honetan

Ohitura handiko ekimena ospatuko da igandean, Donostiako Hipodromoan, 57. Nazioarteko krosa. Aurten berrikuntza ugari dakartza proba honek. Horien artean, Euskadiko txapelketa ere jokatu dela. Nazioarteko korrikalariekin batera, erkidegokoak ere bertan izango dira garaipena lortzeko asmoz.

Zatopek, Mamo Wolde, Mariano Haro edo Paulo Guerra izan dira Donostiako nazioarteko kroseko irabazleak batzuk. Azken urteetan, keniarrak edo etiopiarrek izan dira nagusi eta aurten ere horrela izan daiteke.
 Igandean, urtarilaren 29a, 57. Donostiako Nazioarteko Krosa egingo da. Asteartean, aldiz, lasterketako aurkezpena izan Donostiako Udaltxan honetan lasterketako antolatzailek aurteko berrikuntzak azpimarratu zituzten.

Euskadiko txapelketa

Berri aipagarriena kadete, jubenil, junior eta senior mailan Euskadiko txapelketa jokatu dela izango da.

Era honetara, senior mailan Euskadiko korrikalari eta talde hoberenak egongo dira Donostiako Hipodromoan.

Lehia handia egongo da martxoaren 4an Gijonen antolatuko den Espainiako txapelketarako txartela lortzeko.

Zirkuitua eta distantziak

Honetaz gain, antolakuntzak zirkuitua hobetu du. Honekin bi helburu bete ditu lasterketa amaiera ikusleei hurbiltzea eta kategoriak distantzia berrietara egokitzea. Izan ere, hemendik

Hala ere, gizonezko mailan, keniarrak garaipena lortzea aterako da. Hauen artean, iazko irabazlea Kipro- no Menjo edo Paul Tanui 2011 urteko munduko krosek- ko txapeldun ordea eta Muguerza oroienezkoaren irabazlea izango dira.

Arestian aipatu legez, Euskadiko korrikalari onenak ere izango dira bertan, aipagarriena, Ivan Sanchez.

Emakumeen mailan, Marta Dominguez eta Nuria Fernandez izango dira keniarrak, eritrear eta etiopiarren aurka lehiatu beharko direnak.

Hauetaz gain, herriko Gonzalo Sukunza eta Pili Bodegas atletak ere

aurrera, bira txikia 950 metro izango ditu, ertainak 1375 eta handiak 2000 metro.

Aldaketa hauek ez diete ibilbideko jauzi mitiko eta sakangune naturalari eragiten, are gehiago, oztopo berriak izango dituzte korrikalariak.

Gauzak honela, ordutegian ere aldaketak daude, behean dagoen taulan ikusi daitekeen bezala.

Korrikalari ezagunak

Kroseko antolakuntzak beste urteetan baino korrikalari gehiago espero ditu, Euskadiko txapelketa dela eta.

Lasterketatik kanpo

Honetaz gain, lehenengo urteko arrakasta ikusirik, antolatzaileek ibilgailu klasikoaren bigarren topaketa egingo dute.

Proben ordutegia

ORDUA	KATEGORIA	SEXUA	IBILBIDEA
10:15ean	Kadetea	Mutilak	5.175 m
	Jubenila	Mutilak	5.175 m
	Junior	Mutilak	6.550 m
10:45ean	Kadetea	Neskek	3.375 m
	Jubenila	Neskek	4.325 m
	Junior	Neskek	5.275 m
11:15ean	Infantila	Mutilak	2.950 m
	Infantila	Neskek	2.000 m
11:50ean	Alebin	Mutilak	1.475 m
12:00ean	Alebin	Neskek	1.475 m
12:15ean	Beterano	Emakumezkoak	2.850 m
	Senior	Emakumezkoak	6.975 m
12:55ean	Beteranoa	Gizonezkoak	3.425 m
	Senior	Gizonezkoak	11.475 m

Egunero

Erakusketa

NAROA ARABITORRE artistaren MARGOEN ERAKUSKETA. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **urtarrila osoan zehar.**



Ostirala, 27

Metal gaua

Oiartzungo HIRA eta Usurbilgo MENDEKU ITXUA taldeen eskutik rock eta heavy metal emanaldia, metal gauaren barruan. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan.**



Rock doinu gazteak

Añorgako Bi "N" Bi talde gaztearen rock eta punk doinuak entzuteko aukera izango da gaur gauean Lasarte-Oriako Jalgi tabernan.

Ostirala 27
23:00EAN
JALGI KAFE-ANTZOKIA

Larunbata, 28

Haurrentzako antzerkia

OGRO TXIKIA lana ikusgai. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **18:00etan, EUSKARAZ. Sarrera on-line 3 euro, egunean bertan 3,40 euro.**

Igandea, 29

Zinea

"WINX CLUB, LA AVENTURA MÁGICA" marrazki bizidunetako filma HAURRENTZAKO ZINEA atalean. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan, GAZTELANIAZ. Sarrera 3,40 euro.**



Zinea

HELDUENTZAKO ZINEA atalaren baitan CIRKUS COLUMBIA filma ikusteko aukera. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:30etan. GAZTELANIAZ. Sarrera 5,50 euro.**

Liburutegiko ordutegia



Astehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturtxea
Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 10:45era



Logo Lehiaketa

Kukuka antzerki eta dantza eskolako logoa aurkeztzeko lehiaketa martxan jarri du elkarte honek.

Parte hartu nahi duen pertsona orori irekia dago, baina gehienez bi diseinu aurkeztu ahal izango ditu.

Partehartzaileek logotipoa koloretan eta txuri beltzean paperean, nahiz CD batean gordeta aurkeztu behar ditu. Hauek diseinu grafikoan ohizkoak diren programetan eginak izan behar dira. Eta nahi izanez gero, azalpen labur bat ere aurkeztu daiteke.

LANAK DIN A-4ko kartazal batean aurkeztuko dira, Kukuka antzerki eta dantza eskola etiketa jarrita.

Barnean, sobre itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak jarri beharko dira: izen-abizenak, helbidea elektronikoa eta telefonoa.

LANAK Lasarte Oriako kultur-etxean Kukukaren izenean jarrita dagoen buzoian utzi beharko dira, 2012ko otsailaren 15a baino lehen.

Oharrak

Etixeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, gaur, urtarrilaren 27an Lasarte-Oriako Etixeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Matrikula garaia EPAk

Helduen Hezkuntza iraunkorreko zentroak, EPAk, gaur ikastaroetan izena emateko epea irekiko du.

Zentroak hizkuntzak, informatika, artea eta DBH titulua ateratzeko ikasketak eskaintzen ditu.

Matrikula HHI-EPAko egoitzan, Osasun zentro berriko eraikineko 3. solairuan edo 943 366 608 zenbakian egin daiteke otsailaren 3ra arte.

Santa Eskea

Takun kultur elkartek, Xumela eta Bertso eskolako kideak Santa Ageda egunaren bezperan, otsailaren 4an, larunbatean, 18:30etik aurrera koplatan arituko dira herriko kaleetan barrena.

Ostean afaria izango da Sollane sagardotegian. Afarian parte hartu nahi dutenek Ttakun kultur elkarteko egoitzan, Geltoki kalea 4, edo telefonoz 943 371 448 zenbakian izena eman behar dute.

Ordu berean, Zabaleta auzoko lagunak eskean ateraiko dira auzoan eta inguruko baserrietan.

Ahotsak berotzen joateko, ostiralean otsailaren 3an entsegu egingo dute, 19:30ean Antonio Blas plazan.

Odola ateratzeko hileroko hitzordua

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeko egingo dituzte Osasun Zentroan urtarrilaren 30ean. Argi ordua aldatu baitute, arratsaldeko 17:30etik 20:30era izango da hemendik aurrera. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

1961ean jaiotakoan afaria Txartelen

1961 urtean jaiotako herritarrek Txartel Txoko jatetxean afaria antolatu dute otsailak

11ean, 21:00etan. Afariaren prezioa 30 eurotako da eta ordainketa aurretik egin behar da honako kontu korronte zenbakian, 2101 0092 15 0012963252 (Marta Garcia Ortiz). Izena emateko azken eguna otsailaren 6a izango da.

Gazteburuan Txuri-urdirera

Gazte klubeko gaztetxoak otsailaren 4an arratsalde Donostiako Txuri-Urdin izotz jauregira txangoa izango dute.

Prezioa 10 eurotako izango da Ttakuneko bazkideentzat, eta bazkide ez direnek 12 euro ordaindu behar dituzte.

Izena ematea bulegoan edo telefonoz egin daiteke. Ordainketa bulegoan, Internet bidez edo Kutxan 2101 0048 25 0010089696 zenbakian egingo da.

Azken bi kasuetan, ordainagiriaren kopia bat aurkeztu behar da Ttakun kultur elkartean edo aisia@ttakun.com helbidera bidali beharko litzateke.

Euskal Inauterietako konpartsa

Inauterietarako hilabete baino

gutxiago geratzen da eta Euskal Inauterietako Konpartsak entseguak hasi ditu inauterietako iganderako, otsailaren 19rako gutxiti prest egon dadin.

Antolatzaileek parte hartu nahi duen herritar orori dei egiten diote. Entseguak astearte eta ostegunetan dira arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara Landaberri BHLren egoitzan.

Udalari proposamenak lutzeko aukera

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Sasoeta-Zumaburu herri-ikastetxea

Herrikoa, solidarioa eta etorkizunari begiratzen diona



Euskal kultura eta euskara bultzatzen ditugu,
geureak direlako

Elkarbizitza proiektua: eskolako partaide guztiak
elkarrekin joateko

Agenda 21 proiektua: inguruarekin bat eginez
Ingelesa: atzerrira begira



Teknologia berrien erabilera: irratia, aldizkaria,
informatika,... gure tresnak direla

Behar berezia duten ikasleentzako:
gertuko jarraipena eta aholkulariak



Liburutegi eta mediateka zerbitzua
Eskola orduraz kanpoko jarduerak

Lehen Hezkuntza
Sasoetako eraikinean

Haur Hezkuntza
Zumaburuko eraikinean



Haur Hezkuntzako ikasleentzat goiz txokoak
Jangela zerbitzua
Garraio zerbitzua

BILERA EGUNA

Otsailaren 1ean arratsaldeko 17:30ean,
Zumaburu eraikinean

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Urtarrilaren 30etik
Otsailaren 10era
Kalbario bidea 4 Tel.: 943 361226
Zumaburu 13 Tel.: 943 362274



Lasarte-Orian,
geure herrian!

